Astigarragako Udala
udala@astigarraga.eus

ASTIGARRAGAKO KIROLDEGIA BERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRA PROIEKTUA IDAZTEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

I.- XEDEA

Kontratazio-espediente honen xedea Astigarragako kiroldegiaren berritzea eta handitzearen obra proiektua - azterlan geoteknikoa barne - idazteko zerbitzua ematea da, ondoren faseka gauzatzeko.

Astigarragako udal kiroldegia birgaitzeko eta handitzeko aurretiazko azterlanen eta erantsitako planoen dokumentua hartuko da abiapuntutzat, Uzcanga Arquitectos SL enpresak Astigarragako Udalaren enkargupean idatzia. Eraberritze horren bidez, lehendik dauden eremu batzuk birgaitu eta kiroldegiko beste eremu batzuk handitu nahi dira.

II.- BETE NAHI DIREN BEHARRAK

Astigarragako udal kiroldegia Santio Zeharra kaleko 8. zenbakian dago. Astigarragako Udalaren asmoa da kiroldegiaren beharrezko birgaitzea aprobetxatzea eraikina handitzeko eta espazioa berrantolatzeko, gaur egungo instalazioak ez dituen zenbait alderdi garrantzitsu konpontzeko helburuarekin.

- **Eraikinaren birgaitze energetikoa:** biomasa eta panel fotovoltaikoen bidez energia sortuz. Kiroldegian ezarriko den instalazioak, bere beharrak asetzeko energia sortzeaz gain, inguruko beste udal eraikin batzuetarako energia sortzea nahi da: alboko ikastolarako eta udaletxerako. Igerileku berrien estalkien erabilera aztertuko da, panel fotovoltaikoak ezartzeko.
- **Irisgarritasun unibertsala** eta desgaitasun-egoeran dauden pertsonen diskriminaziorik eza lortzea, eraikin osoan sartzeko eta erabiltzeko.
- Zerbitzu eta aldagela guztiak **genero-exijentzia** eta eskakizunetara egokitzea.

Astigarragak aldaketa demografiko garrantzitsuak izan ditu azken urteotan. Tokiko biztanleriaren hazkundeak baliabideen, ekipamenduen eta zerbitzuen eskaria handitu du, eta horien artean dago kiroldegia. Hori dela eta, aldez aurreko azterlan batzuk egin dira, eta dokumentu horretan oinarrituta, Udalak hausnarketa-prozesu bat antolatu du herritarrekin, hasiera batean proiektatutakoari buruz herritarrek duten iritzia jasotzeko.

Helburua, lehen esan bezala, eraikinaren birgaitzearekin eta handitzearekin bertan dauden gabeziak betetzea da, ahal den neurrian egungo instalazioak mantenduz eta aprobetxatuz, antolaketa berrian integratzen direlarik.

Egun dagoen programa zabaltzea honakoan datza:

- Kanpoko espazioak berrantolatzea, eraikinaren inguruan.
- Kirol-pista berria.
- Fitness erabilerarako azalera handitzea.
- Igerilekua: bi baso, estalkia, fatxadak eta klimatizazioa.
- Aldagelen kopurua handitzea eta aldagelak berrantolatzea.
- Erabilera berriak: Padeleko bi pista estaliak, rokodromoa eta boulderra.

Antolaketa berritik eratorritako eraikuntza-eragiketa guztiak faseka garatu ahal izatea lortu nahi da, txostenean eta aurretiazko azterlanen plano erantsietan planteatzen denaren arabera, behar zehatzetara eta inbertsio-aukeretara egokituta.

Obra hainbat fasetan antolatuta, kiroldegiaren funtzionamenduan interferentzia murriztu nahi da. Egin behar diren barne-berrikuntzak aldez aurreko plangintza batekin egingo dira, fase bakoitza gauzatzeak kiroldegiko espazioen oreka ahalbidetu dezan.

III.- LANEN DESKRIBAPENA

III.1.- PROIEKTUA IDAZTEA

Proiektu teknikoak eta kontratuaren xede diren gainerako agiriak osatzen dituzten dokumentuek unean-unean Udalari aurkezteko garaian nahitaez bete beharreko legeriak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Gainera, esleipendunak behar diren kudeaketak egin beharko ditu enpresa hornitzaileen eta administrazio eskudunen aurrean, proiektuak gauzatzeko behar diren baimenak lortzeko, hargatik eragotzi gabe eskabide formalak Udalak bete ahal izatea.

Proiektua idazteko unean, Udalarekin adostu beharko da, teknikarien oniritzia eta ikuskapena izan dezan.

III-1.a.- **Aurretiazko lanak.**

Azterlan geoteknikoa idatzi beharko da, orubearen ezaugarri baldintzatzaileak zehazten dituena.

III-1.b.**- Oinarrizko proiektua idaztea.**

Proiektuaren abiapuntua, Astigarragako Udalak eskatuta, Uzcanga Arquitectos S.L.P.-k idatzitako “Astigarragako Kiroldegiaren Aurretiazko Azterlanak” izeneko dokumentua izango da. Nolanahi ere, proposamena Udalarekin adostu beharko da, proiektuak teknikarien oniritzia izan dezan. Oinarrizko proiektua onartu ondoren, exekuzio-proiektua garatuko da.

III.1-c.- **Exekuzio proiektua idaztea.**

Proiektuak eraikina deskribatuko du eta hura gauzatzeko obrak definituko ditu, haren ezaugarrietara behar bezala egokituta, proposatutako konponbideek EKTaren eta aplikatzekoa den gainerako araudiaren oinarrizko eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu ahal izateko, eta exekuzioan baloratu eta interpretatu ahal izango direlarik, administrazio publikoentzat indarrean dagoen kontratazio-legeriaren arabera aplikatu beharreko gutxieneko irizpideen arabera. Eraikuntza-elementuen funtzionaltasunari eta alderdi funtzionalei buruzko oinarrizko baldintzak berariazko araudiaren arabera arautuko dira.

Egindako azterlanaren arabera, aurreikusten den gauzatze materialaren aurrekontua 8.400.000 eurokoa da (12.095.160 eurokoa %13 gastu orokorrak (1.092.000€), %6 industria irabazia (504.000€) eta %21 BEZ-a (2.099.160€) barne).

Gainera, proiektua idaztean kontuan hartu beharko da, Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoari kalterik egin gabe, eraikina eraiki beharko dela aurrezpen eta efizientzia energetikorako eta ingurumenaren babesa bultzatzen duten irizpideak jarraitu beharko dituela, bai eraikinaren inguratzaileari dagokionez, bai hornitzen diren instalazioei dagokienez. Gainera, kontuan hartu beharreko faktoreak ekonomikoak, sozialak, administratiboak, estetikoak, urbanistikoak eta energetiko-ingurumenekoak dira.

Exekuzio proiektuak – gutxienez – dokumentu hauek izango ditu:

I. MEMORIA (EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da)

I.1. DESKRIBAPEN- ETA JUSTIFIKAZIO-MEMORIA, honako informazio honekin:

I.1.1 Eragileak
I.1.2 Aurretiko informazioa
I.1.3 Bete beharreko beharrak eta hartutako irtenbidearen justifikazioa, kontuan hartu beharreko faktore guztiak zehaztuta
I.1.4 Proiektuaren deskribapena
I.1.5 Eraikinaren prestazioak

I.2. ERAIKUNTZA-MEMORIA. Hartutako konponbideen deskribapena

I.2.1 Konpartimentazio-sistema
I.2.2 Akabera-sistemak
I.2.3 Egokitzeko sistemak eta instalazioak
I.2.4 Ekipamendua

I.3. EKT BETETZEA

I.3.1 Segurtasuna suteetan
I.3.2 Erabileraren eta irisgarritasunaren segurtasuna
I.3.3 Osasungarritasuna
I.3.4 Zarataren aurkako babesa

I.3.5 Energia aurreztea

I.4. BESTE ERREGELAMENDU ETA XEDAPEN BATZUK BETETZEA

I.5. MEMORIAREN ERANSKINAK

I.5.1 Eraikinaren instalazioak
I.5.2 Eraginkortasun energetikoa
I.5.3 Hondakinen kudeaketaren azterketa
I.5.4 Kalitate-kontrolaren azterketa
I.5.5 Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana edo oinarrizko azterlana

II. PLANOAK (karatulak eta legendak elebidunak izan beharko dira)

II.1. Plano orokorrak
II.2. Arkitektura-planoak
II.3. Egituraren planoak
II.4. Instalazioen planoak

III. BALDINTZEN AGIRIA: baldintza tekniko zehatzen agiria. Agiri horretan, obren deskribapena egingo da eta obrak nola egingo diren arautuko da, honako hauek adierazita: obrak nola egingo diren, kontratistari dagozkion betebehar teknikoak, gauzatutako unitateak nola neurtuko diren eta erabilitako materialen eta gauzatze-prozesuaren kalitate-kontrola nola egingo den.
Honela osatuko da:

III.1. Materialei buruzko aginduak
III.2. Obra-unitateen araberako gauzatzeari buruzko aginduak
III.3. Amaitutako eraikineko egiaztapenei buruzko aginduak

IV. Neurketak

V. Aurrekontua

V.1. Aurrekontua, unitateko prezioak eta, hala badagokio, prezio deskonposatuak adierazita, neurketen egoera eta balorazioa egiteko xehetasunak
V.2. Laburpen orokorra

Proiektua osatzen duten dokumentuek unean-unean indarrean dagoen legedian eskatzen diren eta Udalari aurkezten zaizkion momentuan nahitaez bete behar diren baldintzak bete beharko dituzte.

III.1-d.- **Epeak**

Azterketa geoteknikoa eta oinarrizko proiektua idazteko epea 8 astekoa izango da. Obra-proiektua aurkeztu eta kontratuaren arduradunari emango zaio, Astigarragako Udalari. Oinarrizko proiektua onartu ondoren, exekuzio-proiektua garatuko da.

Exekuzio proiektua idazteko epea 20 astekoa izango da. Obra-proiektua aurkeztu eta kontratuaren arduradunari emango zaio, hau da, Astigarragako Udalari. Azken kasu horretan, eta SPKLren 314. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, beste epe bat emango da, eta epe hori igarotakoan, Udalak proiektu zuzendua onartu edo atzera bota ahal izango du.

III.1-e.- **Proiektuak aurkeztea**

Idatzizko dokumentazioa DIN A-4 tamainako orrietan aurkeztuko da, bi aldeetatik, kopiak behar bezala irakurtzeko modukoak izan daitezen. Dokumentu bakoitzak bere orriak hurrenez hurren zenbakituta eramango ditu. Azken orri bakoitzean data (eguna, hilabetea eta urtea) eta proiektua egin duen teknikariaren jatorrizko sinadura agertuko dira.

Instalazioen kapituluei dagozkienak, eta, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitatea Kontrolatzeko Plana, Hondakinen Kudeaketa eta abar, bereizita aurkeztuko dira, eta horietako bakoitzean memoria, aurrekontua, baldintza teknikoak eta horiei dagozkien planoak multzokatuko dira, karpeta independenteetan, dagokien erakundeetan izapidetzeko.

Planoak tamaina normalizatu erabilgarrietan aurkeztuko dira, eta solteak izango dira, UNE 1-027-75 arauaren arabera tolestuta.

Esleipendunak obra-proiektuaren paperezko bi ale entregatu beharko dizkio Udalari, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, eta ale oso bat formatu digitalean, eta horrek jatorrizko artxibo guztiak izango ditu PDF formatuan, baita programa informatikoekin bateragarria den formatuan ere: testuak, Microsoft Office edo Libre Office; aurrekontua, Presto edo BC3 artxiboekin bateragarria den beste edozein aurrekontu-programa eta zati grafikoa, Autocad v2018.

IV.- BISITA PROGRAMATUA ERAIKINERA

Bisita programatua egingo da eraikinera, hala nahi duten lizitatzaileekin, udal arkitekto teknikoarekin edo haren ordezko beste pertsona batekin batera.

Horretarako, aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da 943 33 50 68 telefonora deituz, edo mezu bat bidaliz helbide elektroniko hauetara: obraketazerbitzuak@astigarraga.eus, arkitektoteknikoa@astigarraga.eus eta irati.obraketazerbitzuak@astigarraga.eus